

HIZKUNTZA-LAGUNTZAILEAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

ATZERRITARTASUN-ARLOAN EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK

ERKIDEGOZ KANPOKOAK (Europar Batasunekoak ez diren herrialdeak):

❖ **Lehen aldiz Espainian:**

Ordua eskatu beharko dute *dagokion probintziako (Araba, Bizkaia edo Gipuzkoako) Polizia Nazionalaren edozein polizia-etxetan txartela (AIT) eskatzeko*. Izapideari “POLIZIA - HATZ-MARKAK HARTZEA (TXARTELA EGITEA)” (“POLICÍA- TOMA DE HUELLAS (EXPEDICIÓN DE TARJETA)”) deitzen zaio. Ordua interneten eskatu beharko da honako esteka honetan:

<https://icp.administracionelectronica.gob.es/icpplus/index.html>

Txartela (AIT) eskatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- **Pasaporte (jatorrizkoa eta fotokopia).**
- Esleitutako ikastetxea eta jarduera-datak jakinarazteko jasotako **IZENDAPENA**.
- NANekoaren neurriko **argazkia** hondo zuriarekin.
- **Ordaindutako tasak**, 790 EREDUAN (012 kodea). Tasa ordaintzeko inprimakia honako esteka honetan deskargatu daiteke:
https://sede.policia.gob.es/Tasa790_012/ImpresoRellenar
- Atzerritarraren identitate-txartelaren **eskabide-orria** (EX-17 eredu), eskatzailearen datuekin beteta; honako esteka honetan lor daiteke: **AIT txartela eskatzea**

❖ **Txartela (AIT) berritzea (EGONALDIAREN LUZAPENA IKASKETAK DIRELA ETA):**

Ikasketengatiko egonaldiaren luzapena eskatu beharko dute dagokion Gobernu Ordezkariordeztan, **ikasle-txartela iraungi aurreko 60 egunetan**. Halaber, txartela iraungi eta hurrengo 90 egunetan eskatu ahal izango da (egindako arau-hausteagatik zehapen-prozedura hasteko aukera galarazi gabe). Horretarako, hurrengo ikasturtean hizkuntza-laguntzaile gisa jarraituko dutela egiaztatu beharko dute, besteak beste.

Baimen horiek bi urrats bereizitan berritzen dira. **Lehen urratsa Gobernu Ordezkaritzan izapidea berritzeko eskatzea da**, eta hark **790 tasaren (052 kodea)** ordainketa eskatzen du atzerritartasun-bulegoen bidez.

Egonaldiaren luzapenaren aldeko ebazpena jaso ondoren, 2. urratsa Polizia Nazionalaren dokumentazio-unitateetan Atzerritarraren Identitate Txartela (AIT) egiteko eskatzean datza, eta horretarako **790 tasa (012 kodea)** ordaindu behar da.

Txartel berria (AIT) eskatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- **Pasaporte (jatorrizkoa eta fotokopia).**
- Esleitutako ikastetxea eta jarduera-datak jakinarazteko jasotako **IZENDAPENA**.

- **Berritzearen aurreko ikasturtearen aprobetxamendu-ziurtagiria.**
- **Eskabide orria eredu ofizialean (EX – 00)**, ale bitan, behar bezala beteta eta atzerritarrak sinatuta. Eskabide-orri hori honako honetan lor daiteke:
[EGONALDIAREN LUZAPENAREN eskaera - EX00](#)
- NANekoaren neurriko **argazkiak** hondo zuriarekin.
- **Ordaindutako tasak, 790 EREDUAN (052 kodea).**

JAKINARAZPENA EGIN ETA HILABETEKO EPEAN LUZAPENA EMAN ONDOREN, txartel berria lortzeko ordua eskatu beharko da. Horretarako, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- **Ikasketengatiko egonaldiaren luzapena emateari buruzko ebazpena**
- **Ordaindutako tasak, 790 ERDUAN (012 kodea).**
- **Pasaporte (jatorrizkoa eta fotokopia).**
- Atzerritarraren identitate-txartelaren **eskabide-orria (EX-17 eredua)**, eskatzailearen datuekin beteta.

Eta erosotasunari begira, **hatz-markak hartzeko (txartela egiteko)** ordua eska daiteke honako esteka honetan:

<https://icp.administracionelectronica.gob.es/icpplus/index.html>

⇒ **ERKIDEGOKOAK (Europar Batasuneko herrialdeak):**

Ordua eskatu beharko dute *dagokion probintziako Polizia Nazionalaren edozein polizia-etxetan "Europar Batasuneko Herritarraren Erregistro Ziurtagirirako"*. Izapideari "POLIZIA – EB-KO HERRITARRAREN ERREGISTRO ZIURTAGIRIA" ("POLICÍA-CERTIFICADO DE REGISTRO DE CIUDADANO DE LA U.E.") deitzen zaio. Ordua interneten eskatu beharko da honako esteka honetan:

<https://icp.administracionelectronica.gob.es/icpplus/index.html>

Horretarako, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- **Pasaporte edo Nortasun Agiri Nazionala (ID), jatorrizkoa eta fotokopia**
- Esleitutako ikastetxea eta jarduera-datak jakinarazteko jasotako **IZENDAPENA**.
- **Ordaindutako tasak, 790 EREDUAN (012 kodea)**. Tasa ordaintzeko inprimakia honako esteka honetan deskargatu daiteke:
[ATZERRITARTASUN-TASAK](#)
- Erkidegoko egoilarraren erregistro-ziurtagiriaren **eskabide-orria** (EX-18 eredua), eskatzailearen datu guztiekin beteta; honako esteka honetan lor daiteke:
[EUROPAR BATASUNeko HERRITARRAREN ERREGISTRO ZIURTAGIRIA](#)

⇒ Izapideei buruzko **INFORMAZIO xehatuagoa** honako esteka hauetan:

www.policia.es/es/extranjeria_portada.php

https://sede.policia.gob.es/portalCiudadano/es/tramites_extranjeria.php

www.mptfp.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/delegaciones/paisvasco/servicios/extranjeria.html